

Gure proiektua, blogg batetik abiatutako egituraketa bat denez, gure diru iturri nagusia publizitatea izango da. Denok dakigun bezala, publizitatea arlo oso zabal bat da, honez gero, publizitate mota zehaztea egokiena dela uste dugu. Kirola eta osasunaren mantenua direnez gure enpresaren euskarri nagusienak, gure blogg-an erabilitako publizitatea honekin bat etortzea ezinbestekoa da. Horregatik, gure web orrialdean ikusiaraziko diren publizitate markak kirola eta osasun on batekin erlazionatutako enpresak izango dira.



Honez gain, publizitatuko ditugun enpresan aztertzeke konpromesua hartzen dugu, hau da, generu bereizketarik ez egitea, beraien produktua nolabaiteko gardentasuna adieraztea, publizitate faltsurik ez edukitzea... eta antzerakoak.

Publizitatearekin jarraituz, kontuan hartu beharreko beste esparru bat, web orrialdean, publizitatearen kokalekua. Hau da, orrialdearen zati txiki bat hartzea da gure ideia, guk sortutako edukia eta publizitatea oso ondo bereiztea, gaizkiulertuak ez egoteko.



Guk planteatutako beste diru iturria, entrenamendu pertsonalak edo dieta pertsonalizatuak izango dira. Gure bloggean, pertsona perfil batzuk bereiziko ditugu, eta haietzako bai entrenamendu pertsonalak (bakoitzaren helburuaren arabera) bai dieta orokorrak dohainik eskeiniko ditugu, baina gure bezeroak, planin pertsonalizatuago bat nahi badu, ordaindu beharko du.